

DANTZA

TELMO ESNALEN FILM BAT

66

SSIFF

SAIL OFIZIALA
DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN
2018



SSIFF

PREMIO GLOBAL IN PROGRESS
DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN
2017



SSIFF

PREMIO DE LA INDUSTRIA
GLOBAL IN PROGRESS
DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN



DANTZA FILMS A.I.E.



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra




AdHoc Studios



Nephilim PRODUCCIONES



NO PROBLEM SONIDO



ELKARGI SGR
Ti alaiak Iratzenen Zuzen Alaiak



LATIDO





AURKIBIDEA

SINOPSIA.....	03
FILMAREN FITXA ARTISTIKOA ETA TEKNIKOA	04
ZUZENDARIAREN OHARRAK.....	05
ZUZENDARIA	06
PRODUKZIO DISEINATZAILEA	07
KOREOGRAFIAK	08
FILMAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA	09
ARGAZKIA	10
MUNTAKETA.....	11
MUSIKA	12
JANTZIAK.....	13
EKOIZTETXEA.....	14
HARREMANETARAKO DATUAK.....	15



LOGLINE

Antzinako dantza baten aurkikuntza, lurrari, bere mitoei eta ohiturei eskainitako kantu poetikoa.

SINOPSISIA

Ekaitza lehertu da landako lan egun gogor baten ondoren. Atertu duenean, bizitza erne da lehen agor zen lurretik. Fruitu bat hazi eta heldu da, bizirik eutsi die izurrien erasoei, eta sargardoaren bizigai izango den sagar bihurtu da. Orduan, uzta ospatzeko tenorea da, topa egitekoa eta maitasunaren festan murgiltzekoa.

Bizitzaren zikloari buruzko istorio bat, bizirik irauteko borrokarena. Horretan, denboraren iragatea naturaren ibilbideak markatuko du. Eta dantza da hori kontatzeko hautatutako hizkuntza. Musikak eguneroko zereginei lagunduko die. Bizitza erritmoa da!

Gai unibertsalak, hemen sinbologia berezi batez jantziak. Dantza tradizionalen unibertso hipnotikoari dagokiona. Tradizioari, lurrari, haren jendeari, mitoei eta ohiturei egindako kantu poetiko bat. Izatearen mirariari buruzko kontaketa bat.

FITXA ARTISTIKOA

Gari Otamendi	Buruzagi
Amaia Irigoyen	Erregina
Ainara Ranera	Neska-laguna
Joseba Astarbe	Mutil-laguna
Josu Garate	Amaterasu

FITXA TEKNIKOA

Gidoia eta zuzendaritza	Telmo Esnal
Produkzio diseinatzailea	Koldobika Jauregi
Koreografoa	José Antonio Urbeltz
Ekoiizlea	Marian Fernández Pascal
Argazki zuzendaria	Javier Agirre Erauso
Muntaia	Laurent Dufreche
Musika	Pascal Gaigne, Mikel Urbetz eta Marian Arregi
Soinua	Alazne Amezttoy eta Xanti Salvador
Jantziak	Arantxa Ezquerro
Makillajea	Lola López
Ile-apainketa	Itziar Arrieta

DATU TEKNIKOAK

98min / Kolorea / Drama musikala / Scope

Dolby Atmos

ABENDUAREN 21EAN ESTREINALDIA ZINEMA ARETOETAN





ZUZENDARIAREN OHARRAK

Dantzaren bidez kontatutako istorio bat da hau. Euskal dantzak erabiliz, kontakizun zikliko bat kontatu dugu, denboraz kanpoko, edozein herri-
ren historia izan daitekeena. Bizitzaren, naturaren, ereintzaren eta uztaren ziklotik oso gertu dagoen kontakizuna. Dantza bakoitzaren atzean dauden sinbologiak erabiliz egin dugu hori: soka-dantzak, ezpatak, zintak, brokelak... Dantzak mugitzen diren ikurrak dira, eta bakoitzak bere esanahia du. Sinbologia horiek oso antzekoak dira Europa osoan, baita Asian ere; kontakizun unibertsal bat da hau, planetaren edozein txokotan ulertuko dutena. Dantzaren munduaren eta zinemaren artean antzekotasun asko ikusten ditut; aspalditik sentitzen nuen film hau egiteko beharra.

Gure helburua pelikula EDER bat egitea izan da beti, ikusleak esango du ea lortu dugun.

Dantza pelikularen prozesoa ez da arrunta izan. Lehenik zein dantzakera mota erakutsi nahi genuen erabaki behar izan dugu. Bigarrenik, kontatu nahi genuen istoriorako, ze dantzak erabili? Pelikulan dantza gutxi batzuk azaltzen dira, askoz gehiago daude euskal dantza tradizionalren errepertorioan, beraz aukeratu eta kokatu behar genituen dantzak

gure istorioa uler zedin. Ni dantzaria izatea erabateko abantailak eman dizkit arlo horretan.

Dantza hiru mailatan egindako film bat da. Alde batetik, 40 urtez Juan Antonio Urbeltz folklorista eta koreografoak egindako aurreko lana dugu, horren bidez sortu baitziren obra honen oinarri nagusia diren hipotesiak. Bigarrenik, Koldobika Jauregi eskultorearen lan estetikoak dugu, bera arduratu baita filmaren kontakizuna aurrera eramateko unibertso estetikoak sortzeaz; bereak dira giro zoragarri hori sortzen duten jantziak, makillajeak, atrezzoak eta dekoratuak. Eta, azkenik, nire lana: istorioaren une bakoitzari hoberen egokitzen zaizkion dantzak hautatzea, horiek kokatzea, nola filmatu erabakitzea... Zuzentzea, hitz batean.

Eta ez nuke musikaren garrantzia ahaztu nahi. Pascal Gaignek lan itzela egin du pieza bakoitzari behar zuen tonu zinematografikoa emateko, aldez aurretik Marian Arregik eta Mikel Urbeltzek sortutako melodiekin lan eginez. Aipatzekoa da, halaber, Xanti Salvadorrek soinuaren postprodukzioan eginiko lana. Gogoan izan behar dugu musikal batez ari garela. Dantza bakoitzak bere musika propioa du. Ezin ahaztu ere Javier Aguirreren argazkilaritza, hain ederra eta beharrezkoa, Koldobikak aurkeztutako proposamen estetikoek bisualki ongi funtziona zezaten. **Dantza**, beste ezeren gainetik eta inoiz baino gehiago, filmean parte hartu duten sail



guztien parte-hartzea duen obra bateratu bat da. Nire proiekturik pertsonal eta korralena da, aldi berean.

Atzean geratu dira lan gogorreko zazpi urte. Pozak eta frustrazioak bizi izan ditugu urte horietan, baina, batez ere, harrotasuna. Gozatu egin dugu filma egiten eta gustatuko litzaidake publikoak ere filma ikusten gozatzea; horrekin konformatuko naiz. Eta, bidez batez, euskal dantzaren ikuspegia goratu badezakegu, ondo baino hobeto.

ZUZENDARIA

→ TELMO ESNAL

Zarautz, 1967

Dantzari, Zuzendari eta Gidoigile, Telmo Esnal Illarramendi (Zarautz, 1967) **Urteberri on, amona!** (2011) eta **Aupa Etxebeste!** (2005, Asier Altunarekin zuzendua. Donostiako Zinemaldian Gazte Epaimahaiaren sariduna) idatzi ditu. Goya sarietan zuzendari berrien atalean nominatua **Aupa Etxebeste!** Filmagatik. Horrez gain, sei laburmetrai ere idatzi eta zuzendu ditu, nazioarteko zinemaldietako birak egin eta hainbat sari jaso dituztenak: **Hamai-ketakoa** (2012), **Amona putz!** (2009), **Taxi?** (2007), **Asedio. Koldobika Jauregi** (2007), **40 ezetz** (1999, Asier Altunarekin zuzendua), **Txotx** (1997, Asier Altunarekin zuzendua).

2009an Asier Altunarekin batera **Brinkola**, teleserie de 13 capítulos para ETB.

Actualmente, está realizando el largometraje **Agur Etxebeste!**, idatzi eta zuzendu zuen, ETBko 13 sailetako telesaila.



PRODUKZIO DISEINATZAILEA

→ KOLDOBIKA JAUREGI

Alkiza, Gipuzkoa, 1959

Artista plastikoa eta eskultorea, Koldobika Jauregik Marlborough galeriaren errekonozimendua jaso du, Espainiako azken 200 urteetako 25 eskultore onenen artean sailkatu baitute.

Artista autodidakta bat da, eta harria, zura, burdinurtua eta metala erabili ohi ditu lanean. Hogei-ta hamar erakusketa baino gehiago antolatu ditu, eta sari eta beka ugari eskuratu ditu, besteak beste 1990ean irabazi zuen Txillidaren Zabalaga beka edo Düsseldorf-en Karl-Heinrich Müller mezenas alemaniarraren ondoan egindako lana.

Eskultorearen inspirazio-iturri nagusia bere esperientzia pertsonalak dira; bere eskulturetan islatzen ditu eguneroko bizitzako esperientziak eta pertsonen arteko harremanak.

Jauregui izan da **Dantzaren** unibertso estetiko eta bisualaren arduraduna.



KOREOGRAFIKAK

→ JUAN ANTONIO URBELTZ

Iruña, 1940

Folklorista eta ikertzailea, Juan Antonio Urbeltzen lanak funtsezkoak izan dira euskal kultura tradizio-naleko jantziak, instrumentuak, forma orkestralak eta koreografikoak berreskuratzeko: ***Música Militar en el País Vasco. El Problema del zortziko, Bailar el Caos. La danza de la osa y el soldado cojo*** (1994), ***Los bailes de espadas y sus símbolos. Ciénagas, insectos y moros*** (2000).

1958an Goizaldi dantza-taldean sartu zen, eta 1966an Argia zuzentzen hasi zen. 1988az geroztik Gipuzkoako Foru Aldundiak babestutako Ikerfolk sozietatea zuzentzen du. Hainbat argitalpenekin kolaboratu du (Dantzariak, Deia eta Euskonews, besteak beste). Euskal atlas koreografikoa egiteko lanak zuzendu ditu.

Nazioarteko hainbat sari jaso ditu. 1987tik, bere ikerketen ondorio gisa tradizioa eta haustura uz-

tartzen dituzten ikuskizunak sortu ditu: Irradaka, Zortziko (1988), Muriska (1989), Alakiketan (1991), Kondharian (1997) eta Pas de basque (2002).

Juan Antonio Urbeltz Jorge Oteiza Fundazio Museoko patronoa da, bai eta Euskalerrriaren Adiskideen Elkartekoa eta Eusko Ikaskuntzako ere.

Dantzako koreografiak koordinatu eta gain-begiratzeaz arduratu da.



FILMAZIOARI BURUZKO INFORMAZIOA

Txintxua Films etxearen ekoizpen horrek Donostiako Zinemaldiaren Glocal in Progress Saria jaso zuen 2017an. 2018an DANTZA filma Donostiako Zinemaldiko 66. edizioko Sail Ofizialean hautatua izan da.

Dantza abenduaren 21ean estreinatuko da areto komertzialetan, eta Bteam Pictures etxeak banatuko du.

Asmo handiko sormen-apustu handia egin du zinemagileak film horretan; Koldobika Jauregi artistak zuzendu du bertan islatzen den unibertso estetiko eta bisuala, eta Juan Antonio Urbeltz ikertzaile eta folkloristak izan du koreografiak koordinatzeko eta ikuskatzeko eginkizuna. Zinema-alorreko 60 profesionalak baino gehiagok hartu zuten parte filmazioan, eta horietako askok egungo euskal zinemako film garrantzitsuenetan ere egin dute lan: Javier Agirre (Goya 2018 Argazki Zuzendaritza onena Handia filmagatik); Laurent Dufreche (Goya 2018 Muntaia onena Handia filmagatik); Ander Sistiaga (Goya 2018 Produkzio Zuzendaritza onena Handia filmagatik); Pascal Gaigne (Goya 2018 Jatorrizko Musika onena Handia filmagatik); Lola López eta Iciar Arrieta maquillaje eta ile-apainketan (biak Goya saritunak El orfanato filmagatik); Alazne Amezttoy eta Xanti Salvador soinuari; Aran-

txa Ezquerro jantziterian; eta Marian Fernández Pascal produkzio exekutiboaren buru.

Dantza egiteko ideia orain dela 7 urte sortu zen, Telmo Esnal eta Koldobika Jauregi dantzaren inguruan zerbait egiteko aukerataz hitzegiten hasi zirenean. 2018ko otsailean bukatuta, bere filmaketa Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia, Lapurdi eta Zaragozako hainbat tokitan egin da. Euskadi eta Nafarroako hainbat taldeetako, hala nola, Argia (Donostia), Duguna (Iruña), Arkaitz (Añorga), Kezka (Eibar) o Haritz (Elgoibar) 8 eta 82 urte bitarteko 250 dantzarik baino gehiago hartu dute parte. Judith Argomaniz, koreografa eta dantzariak ere filmeko hainbat sekuentzietan kolaboratu du. Gainera **Dantzak**, hainbat artisau, musiko, artisau gremioetako hainbat profesional, barrena-dore, txalapartari, kanpai-joleek, etab. kolaboratu dute.

Dantzak Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren, ICAA Zinematografiako eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, ETBren eta Nafarroako Gobernuaren babesa du.





ARGAZKIA

→ **JAVIER AGIRRE ERAUSO**

Irun (Gipuzkoa), 1975

Komunikazioen Elektronikako Teknikari, Irudi eta Soinu Teknikari eta Argazki Zuzendaritza ikasketak egin ostean, film luzeetan eta laburretan lan egiten hasi zen, baita publizitate-spotetan eta bideoklipetan ere.

Publizitatearen arloan, spotetan lan egin du, besteak beste, EITB, Caja Rural, Kutxabank, BBK, Trafikoa, Errenta eta Donostia Turismoarentzat.

Zinemagintzaren alorrean, argazkigintzako zuzendaritza onenaren Goya Saria lortu zuen 2018an **Handia** filmean egindako lanari esker. Argazkigintza onenaren dozenaka sari irabazi ditu hainbat jaialditan, esate baterako, Cearáko Zinema Iberoamerikarrako Jaialdian (Brasil), 2016an, **Amama** filmeko lanarengatik; Budapesteko Nazioarteko Jaialdian eta Greziako Naoussako Nazioarteko 11. Zinema Jaialdian, bietan 2014an, **Cólera** lanarengatik; Olavarríako Film Laburren Nazioarteko Jaialdian (Argentina), 2010ean, **Asámara** film laburrengatik; edo Torontoko Wildsound Zinema Jaialdian, 2009an, **Autorretrato** lanarengatik.

FILMOGRAFIA (hautatuta)

- Oreina (Koldo Almandoz, 2018)
- Dantza (Telmo Esnal, 2018)
- Handia (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2016)
- Amama (Asier Altuna, 2015)
- Acantilado (Helena Taberna, 2015)
- Loreak (José María Goenaga, Jon Garaño, 2013)
- El Método Arrieta (Jorge Gil Munárriz, 2012)
- Urte berri on, amona (Telmo Esnal, 2011)
- Bi Anai (Imanol Rayo, 2011)
- Lucio (Aitor Arregui, José María Goenaga, 2007)
- Aupa Etxebeste! (Aiser Altuna, Telmo Esnal, 2004)
- El maratón del Sáhara (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2003)
- La pelota vasca (Julio Medem, 2002)



MUNTAKETA

→ **LAURENT DUFRECHE**

Hendaia (Frantzia), 1969

Zinema eta telebista muntatzailea, publizitatearen arloan lan egiten hasi zen Channel Grafis ekoizpen-etxerako, eta, gutxira, Madrid Film zinematografia-laborategietako bideo-zuzendari izan zen. 2010 eta 2014 artean muntaketako irakasle izan zen Madrilgo ECAMen eta 2013an Hendaiaiko Zinema Jaialdiaren zuzendarikide.

Zinemaren arloan, film laburrak eta luzeak uztartu ditu, bai dokumentalaren alorrean, bai fikzioan; lehen- dabizi muntaketa-laguntzaile eta ondoren muntatzaile titular lanetan. Telebistaren munduan dokumental eta telesailetan muntatze zein errealizazio lanak txandakatu ditu.

Film luze honekin Dufrechek beste proiektu bat gehitu dio Txintxua Films ekoiztetxearekin duen harreman estuari: dagoeneko **Amama** (Asier Altuna, 2015) film luzean eta **Soroa** (Asier Altuna, 2013), **Zela Trovke** (Asier Altuna, 2013) eta **Taxi?** (Telmo Esnal, 2007) film laburretan lan egin du. Oraingo honetan berriro ere Koldo Almandozekin lan egin du, **Sîpo Phantasma** (2016) eta **Hubert Le Blonen azken hegaldia** (2013) ekoizpenetan kolaboratu ostean (biak Txintxua Films etxearenak).

2018ko muntaketa onenaren Goya Saria, **Handi**arengatik.

FILMOGRAFIA (hautatuta)

- Oreina (Koldo Almandoz, 2018)
- Dantza (Telmo Esnal, 2018)
- Handia (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2016)
- Amama (Asier Altuna, 2015)
- La isla (Ahmed Boulane, 2014)
- Cinéma vérité, vérité (Elena Manrique, 2013)
- Bertsolari (Asier Altuna, 2011)
- Cinco metros cuadrados (Max Lemcke, 2011)
- Casual Day (Max Lemcke, 2007)
- El cielo gira (Mercedes Álvarez, 2004)

MUSIKA



MARIAN ARREGI, MIKEL URBELTZ ARREGI Y PASCAL GAIGNE

Marian Arregi | Donostia, Gipuzkoa (1944-2018)

Mikel Urbeltz | Donostia, Gipuzkoa (1969)

Gazte-gaztetatik euskal dantzetarako musika iker-
tu, berreskuratu, sortu eta hedatu du Marian Arre-
gik; azken hamarkadetan, gainera, Mikel Urbeltz
Arregi semearekin batera.

Haiek arduratu dira filmaren koreografiak sortzeko
erabili diren melodia guztiez.

Pascal Gaignek **Dantzako** musika-sorkuntzak zuzen-
du ditu, Marianen eta Mikelen lanetik abiatuta.

Soinu-bandaren grabazioetan, ospe handiko euskal
musikariek parte hartu dute; tartean, hauek: Ore-
ka TX (txalaparta eta perkusioak), Xabier Zeberio
(biolina eta nickelharpa) eta Iñaki Dieguez (akor-
deoia).

Pascal Gaigne | Caen, Francia, 1958

Konpositore polifazetiko da, eta bere kontzertu-
rako musika nazioarteko orkestra, talde instrumen-
tal eta bakarlari ospetsuek interpretatu dute. Bere
konposizioek sariak jaso dituzte Linzeko (Austria)
eta Bourgeseko (Frantzia) nazioarteko jaialdietan,
eta munduaren luze-zabalean interpretatu dira.

Bere obra nagusien artean, nabarmentzekoak dira
honako hauek: **O-portes d´Aerea** (6 perkusionista-
rentzat); **Boreal** (musika elektroakustikoa); **Signes**
Ascendants (klarinetea eta akusmatikoa); edo or-
kestrarako **Hypnos variation**.

Antzerkirako eta zinemarako musika ere konposa-
tu du 90etik gora film luze eta laburretarako, hain-
bat zuzendarirentzat (Víctor Erice, Daniel Sánchez
Arévalo, Icíar Bollaín, Montxo Armendáriz, Gracia
Querejeta...).

Jatorrizko musika onenaren Goya eta Feroz sariak
jaso ditu 2018an, **Handia** filmerako egindako lana-
gatik.

PASCAL GAIGNEREN FILMOGRAFIA

- Dantza (Telmo Esnal, 2018)
- Errementari. El herrero y el diablo (Paul Urkijo Alijo, 2017)
- Handia (Aitor Arregi, Jon Garaño, 2017)
- El faro de las orcas (Gerardo Olivares, 2016))
- Plan de fuga (Iñaki Dorronsoro, 2016)
- Ympyrät ja kivet (Rax Rinnekangas, 2016)
- El olivo (Icíar Bollaín, 2016)
- Embarazados (Juana Macías, 2016)
- Theon talo (Rax Rinnekangas, 2014)
- Lasa y Zabala (Pablo Malo, 2014)
- Loreak (Jon Garaño, Jose Mari Goenaga, 2014)
- El joven Paulo Coelho (Daniel Augusto, 2014)
- Luciferin viimeinen elämä (Rax Rinnekangas, 2013)
- Katmandú, un espejo en el cielo (Icíar Bollaín, 2011)
- Verbo (Eduardo Chaperó-Jackson, 2011)



JANTZIAK

→ **ARANTXA EZQUERRO**

Zaragoza, 1978

Jantziak diseinatu ditu antzerkirako hainbat produkzioetan, esate baterako Carlota PérezReverteren ***Perdona si te mato, amor***; Alberto Castrillo-Ferrerrek zuzendutakoa Teatro Español antzokian. Jantzigintzako laguntzailea izan da Aragoiko Zentro Dramatikoan. Jantzi-diseinatzaile lanetan aritu da Zaragozako Auditoriumeko ekoizpen propioko hainbat operatan.


Zinemagintzan, Miguel Ángel Lamata, Paula Ortiz eta Miguel Alcantud zuzendarien esanetara egin du lan, beste batzuen artean.

Telebistari dagokionez, jantzigintzako arduraduna izan da TVEko ***Se hace saber*** (100 Balas, 2013), eta ***Plaza de España*** (Hill Valley, 2011) telesailetan, baita Canal+-eko ***Los Webones*** (Luis Guridi, 2010) telesailean ere.

Jantzigintza onenaren sarirako izendatu zuten ***La novia*** filmean egindako lanagatik Gaudí Sarien 2016ko edizioan.

FILMOGRAFIA

- Dantza (Telmo Esnal, 2018)
- Nuestros amantes (Miguel Ángel Lamata, 2016)
- La novia (Paula Ortiz, 2015)
- Diamantes negros (Miguel Alcantud, 2013)
- De tu ventana a la mía (Paula Ortiz, 2011)
- Tensión sexual no resuelta (Miguel Ángel Lamata, 2010)
- Una de zombis (Miguel Ángel Lamata, 2003)



EKOIZLEA

→ MARIAN FERNÁNDEZ PASCAL

Iruña, 1974

Nafarroako Unibertsitatean Ikusentzunezko Komunikazioan lizentziatu zen, eta Film Certificate ikasketak egin zituen ondoren New Yorkeko Unibertsitatean. 2008an Asier Altunarekin batera Txintxua Films sortu zuen. Bere film guztien ekoizle exekutiboa da.

2000 eta 2005 bitartean **Sogecine** ekoizpen-taldeko kide izan zen honako proiektu hauetan: **Los otros** (Alejandro Amenábar, 2001), **Mortadelo y Filemón** (Javier Fesser, 2003), **Mar adentro** (Alejandro Amenábar, 2004). Filmetako ekoizpen-buru izan zen **Cosmos** (Diego Fandos, 2007), **Casual Day** (Max Lemcke, 2006) bezalako filmetan.

Nafarroako Punto de Vista zinemaldiko ekoizpeen-koordinatzailea izan da 2013-2017 bitartean.

Plentziako Mikrofilm Short Festival, Donostia Zinemaldia eta Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Asteko epaimahaikide izan da.

Mondragon Unibertsitateko ikus-entzunezko komunikazio graduan kolaboratzen du irakasle gisa. Larrotxenekozineko produkzio tallerrak eman ditu.

EKOIZTETXEA. TXINTXUA FILMS

→ TXINTXUA FILMS

Marian Fernandez ekoizleak eta Asier Altuna zuzendariak sortu zuten 2008an, eta honako film luze hauek ekoitzi ditu: **Oreina** (2018); **Sípo Phantasma** (2016); **Amama** (2015), Donostia Zinemaldian Euskal Zinemaren Irizar Saria jaso zutena; eta **Bertsolari** (2011), Donostia Zinemaldiko Sail Ofizialen aurkeztu zutena.

Nazioarteko zinema-jaialdietan ibilaldi luzea izan duten eta hainbat sari jaso dituzten dozena bat film labur ere ekoitzi ditu Txintxuak:

Plâgan (Koldo Almandoz, 2017)

Gure Hormek (Las chicas de Pasaik, 2016)

Soroa (Asier Altuna, 2014)

Hubert Le Blonen azken hegaldia (Koldo Almandoz, 2014)

EZIN Neighbor (Asier Altuna, 2014)

Zela Trovke (Asier Altuna, 2013)

Hamaiketakoa (Telmo Esnal, 2012)

Deus et machina (Koldo Almandoz, 2012)

Artalde (Asier Altuna, 2011)

La Gran Carrera (Kote Camacho, 2010)

Amona Putz! (Telmo Esnal, 2009)

Taxí? (Telmo Esnal, 2007)



HARREMANETARAKO DATUAK

EKOIZTETXEA

TXINTXUA FILMS

Euskadi etorbidea, 53 4A

20110 Trintxerpe

Gipuzkoa

www.txintxua.com

txintxua@txintxua.com

+34 943 393 380

PRENTSA ETA KOMUNIKAZIOA

Andrés García de la Riva

prensa@txintxua.com

+34 672 376 162

BANATZAILEA

B-TEAM PICTURES

www.bteampictures.com

Nayla Vega

nayla.vega@bteampictures.es

Lara Pérez Caminha

larapcaminha@bteampictures.es

+34 910 406 728